

FORMAKUNTZA PLANA



2024-2025

Laguntzaileak:



Egutegia:

AZAROA						
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

ABENDUA						
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

URTARRILA						
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

OTSAILA						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28		

MARTXOA						
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

APIRILA						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27

- JARDUNALDIA: 64/2024 DEKRETUA: AUKERA BERRIAK.
- ERABAKI BERRIAK. ATEAK IREKIZ (3. ADINA).
- MUSIKA HEZKUNTZA GOIZTIARRA.
- ABUSU SEXUALAK.
- MUSIKA-PRODUKZIOAREN HASTAPENAK.
- SCAPE ROOM MUSIKALA SORTU. AZARORA ATZERATUTA

EHME**EUSKAL HERRIKO MUSIKA ESKOLEN ELKARTEA**

Euskal Herriko Musika eta Dantza Eskolen Elkarteak 1994ko abenduan jaio zen 8 eskola elkartuta. Gaur 68 musika eskolaekin osaturik dago.

Gure eginkizuna, musika heziketa proposamen berriak jakinaraztea da, ikasketak eta dinamikak sustatzea kalitatezko irakaskuntzan eragina izateko, gure udalen ingurune sozialari eta gure herritarren interesari arreta ipiniz.

Profesionalei hezkuntza iraunkorra emateko asmoarekin, urterako prestakuntza plana hau antolatu dugu.

Ikastaro horiei buruz informazio guztia, www.ehme.eu Web orrian aurki dezakezue._

EGITARAU OROKORRA

1.- JARDUNALDIA: “ 64/2024 DEKRETUA: AUKERA BERRIAK”

Tokia: Bidarte Jauregia(Bilbo)

Data: Azaroak 16

Orduetgia: 10etatik 13:30ak arte

Hizkuntza: euskera

Matrikula: elkarkideak 50€ / ez elkarkideak: 75€

Nori zuzenduta:

- Musika eta Dantza Eskoletako zuzendaritza taldeentzat
- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

2.- ERABAKI BERRIAK, ATEAK IREKIZ: ongi etorri nagusiak musika eskolara

Emailea: Nerea Goikoetxea

Tokia: Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskola

Data: urtarrilak 23 eta 30 eta otsailak 6, 13, 20 eta 27. Otsailak 14 eta 21 klase praktikoak.

Iraupena: 18 ordu (9:00etatik 12:00ak arte) + praktika 3,5 ordu (10:45etatik 12:30ak arte).

Hizkuntza: euskera

Matrikula: elkarkideak 40€ / ez elkarkideak 100€

Nori zuzenduta:

- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

3.- MUSIKA HEZKUNTZA GOIZTIARRA

Emailea: Beatriz García

Tokia: Bilbaomusika

Data: urtarrilak 24, eta 31 eta otsailak 7, 14 eta 21

Iraupena: 20 ordu (9:30tatik 13:30ak arte)

Hizkuntza: euskera

Matrikula: elkarkideak 40€ / ez elkarkideak: 100€

Nori zuzenduta:

- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

4.- ABUSU SEXUALAK

Emailak: Raquel Pereda (gizarte-langilea) Ander Fernández (irakaslea eta haurren sexu-abusuaren prestakuntzan aditua, sentsibilizazioan, detekzioan eta prebentzioan.

Tokia: On-line

Datak: Otsailak 10, 12, 17 eta 19

Iraupena: 12 ordu (9:00etatik 12:00ak arte)

Hizkuntza: gaztelera

Matrikula: elkarkideak 25€ / ez elkarkideak: 50€

Nori zuzenduta:

- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

5.- MUSIKA-EKOIZPENAREN HASTAPENAK

Emaila: Flavio Bánterla

Tokia: Donostiako Udal Musika eta Dantza Eskola

Data: martxoak 13, 20 eta 27 eta apirilak 3

Iraupena: 12 ordu (9:00etatik 12:00ak arte).

Hizkuntza: gaztelera

Matrikula: elkarkideak 25€ / ez elkarkideak 50€

Nori zuzenduta:

- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

6.- SCAPE ROOM MUSIKAL BATEN SORRERA

Emaila: Garazi Zabaleta

Tokia: Aurrez-aurrekoa eta on-line

Datak: Azarora atzeratuta

Iraupena: 16 ordu

Hizkuntza: euskeraz

Matrikula: elkarkideak 40€ / ez elkarkideak 100€

Nori zuzenduta:

- Bazkide diren Musika eta Dantza Eskoletako irakasleentzat
- Beste irakasleentzat, bakarrik plazak egongo balira

Emailak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak**1.- JARDUNALDIA: “64/2024 DEKRETUA: AUKERA BERRIAK”**

Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolak arautzen dituen 64/2024 Dekretua argitaratu ondoren, aukera berriak zabaldu dira. Horregatik, Musika eta Dantza Eskolen Elkartetik jardunaldi pedagogiko bat antolatu dugu azaroaren 16an, Bilboko Bidarte Jauregian (Agirre Lehendakariaren Etorb., 42, Deusto, 48014 Bilbo, Bizkaia), honako gai hauek jorratzeko:

10:00 Nerea Goikoetxea: ERABAKI BERRIAK, ATEAK IREKIZ: ongi etorri nagusiak musika eskolara

Musika-eskolak garen aldetik, gure komunitateari zerbitzu emateko eta musika guztiontzat eskuragarri egiteko konpromisoa dugu. Dekretu berriak aukera ematen digu gure eragin soziala zabaltzeko eta publiko berriengana iristeko. Ildo horretan, gure adinekoekin egiten dugun lana bat dator gure helburuekin, hau da, biztanle guztien bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten musika-programa inklusiboak eta aberasgarriak eskaintzeko helburuarekin. Esperientzia pertsonal batek gidatuta, proiektu horretarako bidea egingo dugu.

11:00 Beatriz García: MUSIKA HEZKUNTZA GOIZTIARRA

Zergatik hasi adin goiztiarretan? Zer gaitasun ditu haurrak jaio aurretik eta ondoren? Zer onura ditu musika-hezkuntza goiztiarrak? Zer lantzen da? Nola? Galdera horiei erantzuteko, haurren garapena, gaitasunak, estimuluen garrantzia eta ikerketarik esanguratsuenak ezagutuko ditugu. Modu praktikoa jarraituko dugu ikasgelako helburuekin, edukiekin, metodologiarekin, materialarekin eta egiturarekin.

Musika tresna aparta da haurren garapen integrala bultzatzeko.

12:00 ATSEDENALDIA

12:30 Patxi Laborda - MUSIKA DANTZA DEZAGUN

Ikastaro honetan dantzan arituko gara lurrean egiten diren erritmoak landuz. Erritmo hauek gainerako gorputzari modu naturalean helarazten zaizkie orkatiletatik, belaunetatik eta aldakatik, eta horregatik atala hauek behar bezala erabili behar dira. Beraz, lana dantzatuko dugun musika ulertzea eta oinekin erritmoak behar bezala jotzea bideratzen da.

Ulertu behar dugu, halaber, dantza egiten dugunean dantzari onek kontrolatu behar duten inertzia eta karga etengabeko jokoak, desplazamenduak lan eginez. Hori guztia dantza sistemen ulermenetik inprobisazioa eta sorkuntza azpimarratuz.

13:30 Amaiera

Emailak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

1. PONENTZIA: ERABAKI BERRIAK, ATEAK IREKIZ: ongi etorri nagusiak musika eskolara

Nerea Goikoetxea Lasak musikarekin eta haren botere eraldatzailearekin du konpromisoa. Musika-prestakuntza sendoa eta musika-hezkuntzaren esparruan ibilbide luzea izanik, musikaren dimentsio anitzak eta garapen pertsonal eta sozialean duen aplikazioa aztertzen eman du bere ibilbidea.

Bere prestakuntza akademikoa Erreterria eta Donostiako kontserbatorioetako piano ikasketak, musikoterapia espezializazioak, programazio neurolinguistikoa eta adimen emozionala barne hartzen ditu. Oinarri teoriko sendo horri, Edwin E. Gordonen metodologian duen prestakuntzari eta Paulo Lameiroekin duen esperientziari esker, bizitzako hainbat etapatan musika-hezkuntza ikuspegi integral eta pertsonalizatu batekin jorratzeko aukera du.

Bere ibilbidean zehar, esperientzia zabala garatu du hainbat musika proiektutan. SAMP proiektua, Paulo Lameirok gidatua. Bertan, musika eraman du zaharren egoitzetara, eta adinekoen egoitzetara, eta haien bizi-kalitatea hobetu du musika-adierazpenaren bidez. Gainera, haurdun daudenentzako proiektuak, Musika Hezkuntza Goiztiarra eta nagusientzako musika tailerrak diseinatu eta martxan jarri ditu Azkoitiko Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan, eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan.

Irakaskuntzarekin duen konpromisoa dela eta, bere esperientziak partekatu ditu EHMEk antolatutako hitzaldi eta jardunaldietan, eta Musikeneko Pedagogia Sailak gonbidatu du bere proiektuak azaltzeko.

SINOPSISIA

Musika eskolak garen heinean, gure komunitatea zerbitzatzeko eta musika denon eskura jartzeko konpromisoa dugu. Dekretu berriak gure eragin soziala zabaltzeko eta publiko berrietara iristeko aukera ematen digu. Alde horretatik, gure adinekoekin egiten dugun lana bat dator gure helburuarekin: herritar guztien bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten musika-programa inklusiboak eta aberasgarriak eskaintzea. Esperientzia pertsonal batek gidatuta, proiektu horretarako bide bat egingo dugu

2. PONENTZIA: MUSIKA HEZKUNTZA GOIZTIARRA

Beatriz García Rodríguez, Irunen (Gipuzkoa) jaioa.

“Musika Hizkuntza eta Hezkuntzaren Pedagogian” lizentziaduna, “Musika Hezkuntza Goiztiarreko” espezialitatean, Euskal Herriko Goi-Mailako Kontserbatorioan, Musikenen. Musika Hezkuntza Goiztiarreko ikasketak sakondu ditu Boloniako Kontserbatorioan, Italian.

Akordeoiko goi-mailako eta kantuko gradu profesionaleko tituluduna da, baita haurtxoentzako "Shantala" masaje-monitoreia ere.

Bere prestakuntza hainbat ikastaro eginez osatzen du: metodologiak, psikomotrizitatea, kantua...

Emaleak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

“*Incanto*” ikerketan eta *¿Se nace musical? Cómo promover las aptitudes musicales de los niños*” Johannella Tafuriren liburuan kolaboratzailea izan da.

“Musika hezkuntza goiztiarrari” eta “Musika Tailerrari” buruzko hitzaldiak eman ditu (EHME: “*Horizonteak zabaltzen*” (2010ean), “*Musika Hezkuntza Goiztiarra*” (Donostian, 2016an) eta hainbat musika eskolatan (Oñatin, 2017an eta Mendaron, 2023an).

Irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak eman ditu “Ttiklik” elkargunean, (Beasainen, 2015-2018).

Irakaslea eta kolaboratzailea izan da “Musika Hezkuntza Goiztiarra” irakasgaia ezartzen hainbat musika eskolatan (Lazkaon, Astigarragan, Urnietan, Zumarragan, Azkoitian...) baita haur eskoletan ere (Irunen, Olaberrian, Donostian).

Musika tailerreko, hastapeneko, musika hizkuntzako, helduentzako musika hizkuntzako, akordeoiko, Koruko eta talde instrumentaleko eskolak eman ditu hainbat musika eskolatan eta Irungo Kontserbatorioan.

Esperientzia du kontzertu didaktikoak sortzen, antolatzen eta aurkezten.

Urnietako “Lourdes Iriondo” Musika Eskolako zuzendaria izan da (2011-2013) eta gaur egun bertan musika tailerra, hastapena eta musika hizkuntzako eskolak ematen ditu.

LABURPENA

Zergatik hasi adin goiztiarretan? Zer gaitasun ditu haurrak jaio aurretik eta ondoren? Zer onura ditu musika hezkuntza goiztiarrak? Zer lantzen da? Nola? Galdera hauei erantzuna emango diegu: haurtxoaren garapena, gaitasunak, estimuluak eta ikerketa garrantzitsuenak aztertuz.

Ondoren, musika hezkuntza goiztiarreko helburuak, edukiak, metodología, materiala eta klasearen egitura, modu praktikoa batean ikusiko ditugu.

Musika erraminta paregabea da haurraren garapen integrala sustatzeko.

3. PONENTZIA: MUSIKA DANTZA DEZAGUN

Patxi Laborda, dantzaria, dantza-maisua, hainbat dantza tradizionalen koreografoa, gidoilaria eta dantza tradizionalaren sustatzailea da, eta urteak daramatza helduentzako dantza tradizionalerako irakasle gisa Bilbao Musikan. AIKO Taldearen sortzailea. Talde horretan irakasle gisa aritzen da, eta dantzarako hainbat disko eta DVD egiten eta grabatzen parte hartu du. Dantza tradizionalerako hamaika ikastaro eman ditu, bai gure herrian, bai gure mugetatik kanpo. Euskal dantzari hainbat ikerketa lan egin ditu, baita aldizkari eta argitalpen espezializatuetan kolaboratu ere.

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

LABURPENA

Ikastaro honetan dantzan arituko gara lurrean egiten diren erritmoak landuz. Erritmo hauek gainerako gorputzari modu naturalean helarazten zaizkie orkatiletatik, belaunetatik eta aldakatik, eta horregatik atala hauek behar bezala erabili behar dira. Beraz, lana dantzatuko dugun musika ulertzea eta oinekin erritmoak behar bezala jotzea bideratzen da.

Ulertu behar dugu, halaber, dantza egiten dugunean dantzari onek kontrolatu behar duten inertzia eta karga etengabeko jokoa, desplazamenduak lan eginez. Hori guztia dantza sistemen ulermenetik inprobisazioa eta sorkuntza azpimarratuz.

2.- ERABAKI BERRIAK, ATEAK IREKIZ: ongi etorri nagusiak musika eskolara

Bizi-itxaropen gero eta handiagoak eta biztanleria zahartuaren gorakadak erronka eta aukera berriak planteatzen dituzte gizartearen esparru guztietan. Musika-hezkuntzaren arloan, gure erakundeek adinekoen ongizatean eta garapenean izan dezaketen eginkizunari buruz gogoeta egitera gonbidatzen gaitu errealitate horrek. Agerikoa da bereziki populazio sektore honetarako diseinatutako musika proiektuak sortzeko beharra. Musikak, adierazpenerako, emoziorako eta gizarte-konexiorako tresna den aldetik, adinekoen bizi-kalitatea hobetzen lagun dezake, haien gaitasun kognitiboak, fisikoak eta emozionalak estimulatuz. Hala ere, duen potentziala izan arren, kolektibo horrekin lan egiteko musika arloko profesionalen prestakuntza oraindik eskasa da.

Azken 13 urteotan, adinekoentzako musika-proiektuak sortzen eta zuzentzen izan dudan esperientziari esker, egiaztatu ahal izan dut ez dagoela arlo horretako prestakuntza arauturik. Ikasketa prozesu autodidakta baten bidez, nire musika ikasketak psikologian, pedagogian eta antzeko beste diziplina batzuetan ikasitakoekin osatu ditut, eta horrek metodologia propio eta eraginkor bat garatzeko aukera eman dit.

Funtsezkoa iruditzen zait ezagutza eta esperientzia hori adineko pertsonekin lan egin nahi duten beste musika profesionalekin partekatzea. Nire helburua prestakuntza praktikoa eta pertsonalizatua eskaintzea da, partaideek talde bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitutako musika proiektuak diseinatu eta aurrera eramateko beharrezko tresnak eskura ditzaten.

Garrantzitsua da azpimarratzea ez dagoela formula bakar bat adinekoekin lan egiteko. Proiektu bakoitza modu individualizatuan sortu behar da, testuingurua, taldearen ezaugarriak eta profesionalaren trebetasunak kontuan hartuta. Alde horretatik, proposatzen dudan prestakuntzak esparru teoriko eta praktikoa eskaini nahi du, baita hausnarketarako eta esperientziak partekatzeko gune bat ere, parte-hartzaile bere proposamena garatu ahal izan dezan.

Azken finean, musikaren botere eraldatzailean eta adinekoen bizitza aberasteko duen gaitasunean sinesten dut irmoki. Prestakuntza honen bidez, musikaren hezkuntza komunitatea gai honen garrantziaz sentsibilizatu nahi dut eta kalitatezko musika proiektuak sortzen eta adinekoen ongizatea hobetzen lagunduko duen prestakuntza proposamen bat eskaini.

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

Emailea

Nerea Goikoetxea Lasak musikarekin eta haren botere eraldatzailearekin du konpromisoa. Musika-prestakuntza sendoa eta musika-hezkuntzaren esparruan ibilbide luzea izanik, musikaren dimentsio anitzak eta garapen pertsonal eta sozialean duen aplikazioa aztertzen eman du bere ibilbidea.

Bere prestakuntza akademikoa Errenteria eta Donostiako kontserbatorioetako piano ikasketak, musikoterapia espezializazioak, programazio neurolinguistikoa eta adimen emozionala barne hartzen ditu. Oinarri teoriko sendo horri, Edwin E. Gordonen metodologian duen prestakuntzari eta Paulo Lameiroekin duen esperientziari esker, bizitzako hainbat etapatan musika-hezkuntza ikuspegi integral eta pertsonalizatu batekin jorratzeko aukera du. Bere ibilbidean zehar, esperientzia zabala garatu du hainbat musika proiektutan. SAMP proiektua, Paulo Lameirot gidatua. Bertan, musika eraman du zaharren egoitzetara, ospitaleetara eta adinekoen egoitzetara, eta haien bizi-kalitatea hobetu du musika-adierazpenaren bidez. Gainera, haurdun daudenentzako proiektuak, Musika Hezkuntza Goiztiarra eta nagusientzako musika tailerrak diseinatu eta martxan jarri ditu Azkoitiko Bizkargi Musika eta Dantza Eskolan, eta Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolan. Irakaskuntzarekin duen konpromisoa dela eta, bere esperientziak partekatu ditu EHMEk antolatutako hitzaldi eta jardunaldietan, eta Musikeneko Pedagogia Sailak gonbidatu du bere proiektuak azaltzeko.

3.- MUSIKA HEZKUNTZA GOIZTIARRA

Deskribapena:

Ikastaro hau musika hezkuntza goiztiarrean murgildu nahi diren irakasleei zuzenduta dago. Nola irakatsi 0-3 urte bitarteko haurrei? Nondik hasi? Zer jarduera eta abesti dira egokiak etapa bakoitzean? Nola landu ditzakegu erritmoa, ahotsa, entzumena, mugimendua, inprobisazioa, sormena...?

Oinarri teoriko labur baten ondoren, alderdi praktikoan zentratuko gara, mota askotariko abestiak, dantzak, entzumen jarduerak, mugimendua, ipuin musikatuak... landuz.

Helburuak:

- Irakasleei tresnak eta musika baliabideen erreperitorio zabala eta askotarikoa ematea (haur-kantak, olerkiak, musika-ipuinak, dantzak, jolasak, psikomotrizitate-ariketak...), musika hezkuntza goiztiarreko klaseetan aplikatzeko.
- Hurrengan musikarekiko zaletasuna piztea.
- Haurren garapen integrala bultzatzea musikaren bidez. Hau da, gaitasun kognitiboak, psikomotorrak, afektiboak, sozializaziokoak eta komunikaziokoak garatzea. Aldi berean, indibidualtasuna, berezotasuna eta sormena sustatzea.
- Musika-gaitasunak garatzea, hala nola, gaitasun erritmiko-psikomotorrak, ahotsa, entzumena eta musika-tresnen bidez garatzen direnak ere.
-

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

Eduki teorikoak:

- Haurraren garapena (garunaren garapena, mielinizazio prozesua, garun plastizitatea...)
- Estimuluak.
- Jaio aurreko eta jaio osteko garapen musikolari buruzko ikerketak. Haurtxoaren gaitasunak.

Eduki praktikoak:

- Klasearen egitura.
- Abestiak: ongietorria emateko, magalean, hatzekin eta eskuekin jolasteko, gorputzeko atalak laztantzeko, edukiak ikasteko, keinuak egiteko, perkusio txikiko musika-tresnekin laguntzeko, soinuaren ezaugarriak lantzeko, inprobisatzeko, erlaxatzeko, agurtzeko...
- Entzumen aktiboa. Soinua-isiltasuna. Soinuak eta tresnak ezagutzea. Soinuaren ezaugarriak. Forma musikala.
- Dantzak. Mugimendu libre. Antzezpena.
- Ipuin musikalak.
- Psikomotrizitate-ariketak.

Metodologia:

Oinarri teorikotik abiatuko gara, praktikari ekiteko. Klaseko egitura bat erakutsiko da, abestien erreperitorio zabalarekin (ongietorria emateko, magalean, hatzekin, eskuekin... jolasteko). Halaber, talde txikietan lan egingo da abesti batetik abiatuta jarduerak sortzeko, abestia izango baita etapa honetako baliabide didaktiko nagusia.

Emailea:

Beatriz García Rodríguez, Irunen (Gipuzkoa) jaioa.

“Musika Hizkuntza eta Hezkuntzaren Pedagogian” lizentziaduna, “Musika Hezkuntza Goiztiarreko” espezialitatean, Euskal Herriko Goi-Mailako Kontserbatorioan, Musikenen. Musika Hezkuntza Goiztiarreko ikasketak sakondu ditu Boloniako Kontserbatorioan, Italian. Akordeoiko goi-mailako eta kantuko gradu profesionaleko tituluduna da, baita haurtxoentzako “Shantala” masaje-monitorearenean ere.

Bere prestakuntza hainbat ikastaro eginez osatzen du: metodologiak, psikomotrizitatea, kantua...

“*Incanto*” ikerketan eta *¿Se nace musical? Cómo promover las aptitudes musicales de los niños*” Johannella Tafuriren liburuan kolaboratzailea izan da.

“Musika hezkuntza goiztiarrari” eta “Musika Tailerrari” buruzko hitzaldiak eman ditu (EHME: “*Horizonteak zabaltzen*” (2010ean), “*Musika Hezkuntza Goiztiarra*” (Donostian, 2016an) eta

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

hainbat musika eskolatan (Oñatin, 2017an eta Mendaron, 2023an).

Irakasleentzako prestakuntza-ikastaroak eman ditu "Ttiklik" elkargunean, (Beasainen, 2015-2018).

Irakaslea eta kolaboratzailea izan da "Musika Hezkuntza Goiztiarra" irakasgaia ezartzen hainbat musika eskolatan (Lazkaon, Astigarragan, Urnietan, Zumarragan, Azkoitian...) baita haur eskoletan ere (Irunen, Olaberriar, Donostian).

Musika tailerreko, hastapeneko, musika hizkuntzako, helduentzako musika hizkuntzako, akordeoiko, Koruko eta talde instrumentaleko eskolak eman ditu hainbat musika eskolatan eta Irungo Kontserbatorioan.

Esperientzia du kontzertu didaktikoak sortzen, antolatzen eta aurkezten.

Urnietako "Lourdes Iriondo" Musika Eskolako zuzendaria izan da (2011-2013) eta gaur egun bertan musika tailerra, hastapena eta musika hizkuntzako eskolak ematen ditu.

4.- ABUSU SEXUALAK

Deskribapena

Prestakuntza haurren tratu txarrak testuinguruan kokatuz hasten da, eta haurren sexu-abusuan gelditzen gara. Gutxienez biztanleriaren % 20k bizi duen errealitate horren inguruan sentsibilizatu nahi da, inguruko isiltasuna eta tabua hautsiz. Haurren sexu-abusua zer den zuzenean ezagututa eta horren atzean benetan zer ezkututzen den jakinda, ikastaroak errealitate horretara hurbiltzen gaitu, eta hori prebenitzeko eta/edo gure inguruan izanez gero detektatzeko tresnak ematen dizkigu.

Bizi duten haurrek mezu asko bidaltzen dizkigute jasaten ari direnari buruz, eta, beraz, hitzik gabe zer esan nahi diguten jakiteko beharrezkoa den informazioa behar dugu.

Helburuak

- Haurren sexu-abusuaren errealitatea ezagutaraztea
- Haurren sexu-abusua aitortzeko sentsibilizatzea
- Haurren sexu-abusua detektatzeko tresnak eskuratzea
- Haurren sexu-abusua prebenitzeko tresnak eskuratzea

Programa

- Haurren aurkako tratu txarren testuingurua
 - a. Tratu txar fisikoa
 - b. Abandonua eta tratu txar emozionalak
 - c. Utzikeria fisikoa edo zabarkeria
 - d. Haurren sexu-abusua
- Haurren sexu-abusua
 - a. Gaiari buruzko azterlanak
 - b. Intzidentzia
 - c. Definizioak
 - d. Uste faltsuak
 - e. Kokatze-sindromea
 - f. Lege-alderdiak

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

- Detekzioa
 - a. Adierazle fisikoak eta jokabidezkoak (espezifikoak eta ez-espezifikoak)
 - b. Adierazleak eboluzio-etapen arabera
 - c. Haurren sexu-abusuaren ondorioak
 - d. Antzemanaz gero nola jardun
- Erasotzailea
- Ondorioak helduaroan
- Prebentzioa
 - a. Metodologia eta jarduera
 - b. Arrisku-faktoreak
 - c. Prebentzio-moduak (ipuin-tresna: Elisenda Pascualen "Clara y su sombra")
 - i. Hezkuntza emozionala
 - ii. Sexu-hezkuntza
 - iii. Jolas sinbolikoa
 - iv. Autoestimua/autokontzeptua

Metodologia

Ikastaroak dinamika parte-hartzailea izango du, azalpen teorikoak, ikus-entzunezkoak eta kasu praktikoak uztartuz, eta eztabaida eta hausnarketa sustatuz.

Emaileak

- Ana Sáez Totorikaguena: Pediatriako erizain espezialista
- Ander Fernández González: Hezitzailea eta haurren sexu-abusua prebenitzeko teknikaria
- Raquel Pereda: Gizarte-integratzailea eta gizarte-langilea

5.- MUSIKA-EKOIZPENAREN HASTAPENAK**Helburuak**

- Ordenagailuarekin musika ekoizteko beharrezkoak diren material eta programa informatikoak erabiltzen ikastea
- Partituren edizio digitaletik musika-produkzioa pasatzea
- Tresna birtualak erabiltzea
- MIDI zatiak grabatu eta editatzea
- Audioa grabatu, editatu eta nahastea

Programa

- Soinua eta musika
- Etxean grabatzeko estudioa: musika ekoizteko materialak eta softwarea
- Sampletan oinarritutako lehen ekoizpena
- MIDI eta tresna birtualak
- Partituren edizio digitala eta musika-produkzioan duten erabilera
- Instrumentu birtualen zatiak grabatzea eta editatzea
- Audio-grabazioa: mikrofonoak eta posizionamendua
- Audio-edizioa
- Audio-efektuak
- Parametroen automatizazioa
- Nahasketaren hastapenak

Emaileak - Ikastaroen Helburuak eta Edukiak

Behar praktikoak

- Ikasle bakoitzak bere ordenagailua ekarri behar du (MAC edo Windows)

Emailea

Flavio Bánterla musikari, konpositore eta ingeniari informatiko italiarra da, eta Gipuzkoan bizi da. Informatikaren aplikazio artistikoetan interesatua, musika-ekoizpeneko eskolak eman ditu musika-eskoletan eta Donostia Kulturako ikastaroetan.

6.- SCAPE ROOM-A SORTU

Deskribapena:

Teknika eta metodologietan ematen ari diren aldaketen artean, jolas-esperientziak pil-pilean dauden honetan, gela kudeatzeko esperientzia izan daitekeen Scape Room edo lhes-gela digital bat sortzea proposatzen dugu.

Proposamen honetan, musikaren testuingua modu mixtoan lantzea proposatzen da: scape room digitala ez ezik, fisikoa ere nola integratu ikasiko dugu.

Ikasaiak modu motibagarrian lantzeko aukera eskaini nahi zaio irakaslegoari.

Helburuak:

Helburu orokorra: testu eta irudi bidezko eduki digitalak sortzen ikastea .

Zeharkako helburua: konpetentzia digitala garatzea.

Helburu zehatza: scape roomak sortzeko gai izatea eta sormena bultzatzea.

Emailea:

Garazi Zabaleta konposatzailea da, egun, Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolako zuzendaria, irakaslea eta musikoterapeuta. Musika Konposizioan graduatu zen (CSMN, Nafarroa, 2019) eta Musikoterapia posgradua gauzatu UNIR- en (2024). Gaztetan, Telekomunikazio Ingeniaritza ikasi zuen ikus-entzunezko espezialitatean (NUP, Iruñea, 2010). Webguneen diseinu eta programazioan masterduna da (CEI, Madrid, 2012) eta Hezkuntzan betidanik izan duen interesak Pedagogia gradua ikastera eraman zuen (UNED, 2016-2019). Hezkuntza Ahokularitzara zuzendutako enpresa batean lanean egon zen eta ondoren berak sortutako IKHASI ekimenean (2019-2024). Denboraldi horretan maila guztietako ikastetxeetako irakaslegoarentzat formakuntza saioak diseinatu eta ematen zituen: HH, LH, DBH, Batxilergoa, lanbide heziketakoei, berritzegune nagusirako edota unibertsitateko irakasleei zuzenduak UIK eta UEUren bidez.

Formakuntza saiorik arrakastatsuenak: scape room digitala eta bideogintza hezkuntzan izan ziren.

MATRIKULA

NOTAK:

- Ikastaro guztiak mugatutako plazak izango dituzte
- Ikastaroak burutuko dira, soilik matrikulatutako pertsonen kopuru minimoak osatzen badira.
- EHME ez da erantzule izango aldaketarik suertatu ezker. Inskripzioaren onarpena, ikastaroa ezeztatzea, aldaketak e.a. e-mail-en bidez egingo dira.

IZEN EMATEA

Izen ematea web orriaren bitartez egingo da www.ehme.eu.

Onarpena, inskripzio-ordena zorrotzean egingo da. Itxarote-zerrenda bat irekiko da eta plaza librearen bat sortuko balitz, bertan agertzen diren irakasleei deituko zaie. Ikastaro bat errepikatzeko aukera errepikatuko da, pertsona nahikoa interesatuta egones gero.

Ordainketa web orriaren bitartez egingo da izena ematerakoan.

*Ikastaroetara agertu ez izana inongo justifikaziorik gabe, hurrengo urtera begira EHMEk antolatzen dituen ekitaldietarako parte hartzeko aukera ez izatea suposatuko du.

Abenduak 13ko 15/1999 Datu Pertsonalen Babeserako Lege Organikoarekin bat etorrira, EHMEk jasotzen dituen datu guztiek fitxero batetak gordeko dira automatikoki, datu hauekerabiliko dira azaltzen denarako soilik. Datu pertsonalak behar den tratamendua jasoko dute 994/1999 Dekretu Realak adieraztenduen bezala, aldaketak, galerak edo beste edonork erabilpena gerta ez dadin, behar diren segurtasun neurriak ezarriko dira.